

Platero Bizi Duk !

*Juan Ramón Jiménez, atsegingarri zaidan
olerkari bikañari, Nobel sariaren omenez.*

OTSALAR'EK

Platero dizi duk !
neuk ikusi nian
lo-zorroan zegoela
Josefateko zelaian
Platero bizi duk !
lili margotsu artean ;
txori ta ingumak jostari
ditularik inguruan.

Lasaitu zelaiak !
Poztu bideak !
Baretu gizonak !
Kantatu aurrak !!

Platero bizi duk !
« txiki, illetsu, leguna dan
Platero » maitea,
neuk ikusi nian
Moguer'ko zerutik jetxia.
Bere argizkundera diagu barnean.
Platero ezilkorra duk
bizien ariman.

Argitu izarrak !
Abestu errekek !
Alaitu atso-agurak !
Ospatu aurrak !!

Platero bizi duk !
Gizadiaren biotzetan
barrendua dan gauzik
il ezin litekena ez al ekian ?
Ago Platero, ago gurekin ;
ludiko maitasunik eztitsuenak dituk igan
eta biziko aiz egundoko
mundua mundu dan artean.